

EUSKO JAURLARITZAKO LAN SAILARI

Gaur goizean Bilbon epaiketa bat izango da “Integralia, Apoyo Familia” enplegu agentzia pribatuari.: paperik gabeko etxeko langile nikaraguar batek ordaintzeke duen soldata erreklamatzeko dio.

2010eko azaroaren 8an agentziak fondorik gabeko txeko baten bitartez ordaindu zion likidazioa eta gaurko egunean ez du oraindik bere dirua jasotzerik izan Etxeko Langileen Elkartek ahalegin guztiak eginda ere. Jakin dugu agentziak berdin jokatu duela langile askorekin, batez ere atzerritarrek.

Gaur bi aukera genituen: Epaitegi Sozialera joatea langileen diruaz jabetzen den agentziaren aurka egitera edo hona etortzea, hemen daudelako egoeraren erantzunkizuna dutenak, etxeko langileek halako agentzien eskutan jarri beharra izatearenak.

**HEMEN GAUDE JAURLARITZARI EXIJITZEKO BEHINGOZ
PARLAMENTUAREN EBAZPENA BETE DEZAN ETA**

**LANBIDE ETXEKO ENPLEGUAREN BITARTEKARI ERAGINKORRA
BIHUR DEZALA.**

BIZKAIKO ETXEKO LANGILEEN ELKARTEA